 - Cyberzaintza aurkezteko ekitaldia. Lehenengo Lehendakariordeak eta Segurtasuneko Sailburuak emandako hasierarekin batera, 250 lagunetik gora bildu dira, Euskadiko zibersegurtasuneko ekosistema osatzen duten eragile guztien ordezkariak.
- Estatuko ekitaldiak:
 - Mahai-ingurua, Europako Batzordeak Segurtasun Zibilean, Larrialdietan eta Zibersegurtasunean I+G+Brako urtero egiten dituen laguntzen deialdiari buruzkoa. CDTIk antolatua.
 - Zibersegurtasun Industrialeko Zentroaren urteroko ekitaldiko mahai-ingurua.
 - CiberGalen (Galiziako Xunta) parte hartzea.
- Nazioarteko ekitaldiak:
 - "National Cybersecurity Center Workshop on Cybersecurity in the Spanish Presidency - RDI for SMEs Cyber Capacity Building."
 - "Industrial Security Conference CPH (Danimarka)".

Azkenik, "Ciberseguridad, Seguridad de la Información y Privacidad" (SIC) aldizkariak "SIC saria" eman zion Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia 2023an sortu zen erakunde-mugarriari, Madrilén urtero egiten duen ekitaldian, zibersegurtasuneko ekosistema nazional garrantzitsu guztia bertan zela.

Bestalde, Segurtasun Sailak delitu-modalitate berriak ikertzeko egin dituen jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Ikerketa-Eredu Berria berrikusten eta eguneratzen aurrerapenak egin dira. Eredu honek hiru ardatz ditu: Pertsonen Oinarritutako Arreta, Ebazpena eta Prebentzioa. Eredu berri hori garatzeko, honako ekintza hauek egin dira:
 - 38 agente berri sartu dira Ikerketako Atal Nagusietan.
 - Bi unitate espezializatu eratu dira: Ziberkriminalitate Unitatea eta Lurralde Ingurumeneko Atalak.
- Espezialista-taldeak sartu eta ezarri dira, delitu-modalitate berriei edo konplexutasun handikoei erantzun egokiagoa emateko:
 - 11 espezialista-talde ezarri dira: Ikerketa Kriminalleko eta Polizia Judizialeko 7 talde, Lurralde Ingurumeneko 3 talde eta Ziberkrimeneko Unitate 1.

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian (PLEA) sartzeko modua eta prestakuntzak egokitu dira. 2023an, 201 agente sartu eta prestatu izan dira; horietatik 167 Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialekoak dira, eta 34 delitu informatikoetan espezializatutako lurralde-buruzagitzetakoak.
- Ikerketa-jarduerekin jarraitu da, herritarrek gehien kezkatzen dituzten delitu-figura berriei arreta berezia eskainiz. Ildo horretan:
 - Nabarmentzekoa da 26.475 delituren ikerketa, Ertzaintzaren Ziberkriminalitate Delituen Ekintza Planaren esparruan. Halaber, goraldian dagoen ziberkriminalitateari aurre egiteko plan espezifiko bat onartu da.
 - Etxebizitzetako lapurretei dagokienez, Ertzaintzak 3.456 delitu ikertu ditu. Testuinguru horretan, Ertzaintzak plan espezifiko bat formulatu, onartu eta ezarri du etxeetako lapurretei aurre egiteko, arreta berezia jarrita antolatutako delitu-taldeei.
 - Drogen ekoizpenari eta trafikoari dagokienez, guztira 560 delitu ikertu dira, eta ebazpen-tasa % 90,89koa izan da.

L8 INTELIGENTZIAK GIDATUTAKO SEGURTASUN EREDU BAT GARATZEA

Helburua segurtasunarekin lotutako jarduera guztiak (prebentzioa, ikerketa eta intzidentziei erantzutea), iturri askotatik datorren eta modu integralean ustiatzen den informazio eztabaidagarrian eta egokian oinarrituta egotea da.

Funtzio guztietan inteligentzia txertatzea (prebentzioa, ikerketa, intzidentziei erantzutea) eta maila guztietan (zentrala, lurraldekoa, lokala) barneko eta kanpoko informazio iturri ugari integratzea, analisi gaitasuna izatea, baita denbora errealean ere, eta bilaketa eta txosten interfaze errazak eta interpretatzen errazak izatea faktore erabakigarriak dira.

Segurtasun Sailaren jardueran eraginkortasun handiagoa lortzeko, 2023an zehar prozeduren berrikusketa egiten jarraitu da, etengabe hobetzeko asmoarekin. Hala ere, Segurtasun Publikorako ezinbestekoak dira gorabeherak ikertzea eta horiei erantzutea, bai eta analisi- eta prebentzio-gaitasuna izatea ere.

Egindako jarduera nagusien artea, Ertzaintzako inteligentzia maila nagusian antolakuntza egokitzea eta trafikoaren kudeaketaren hobekuntza operatiboa eta eraginkortasuna antolatzea izan dira. Era berean, informazioaren ustiapen integratu baterako tresna eta funtzio analitiko berriak erabili dira trafikoaren kudeaketa hobetzeko.

Hauek izan dira jarduera aipagarrienak:

- Ertzaintzaren Inteligentzia Operazionalaren testuinguruan, eboluzio funtzional zein teknologikoan aurrera egin da, delituaren prebentzioa eta ikerketa metodoa hobetzeko, adimen operazionalako eta adimen prediktiboko gaitasunak integratuz. Bereziki, honako ekimen hauek ezarri eta indartu dira:
 - Bulego mugikorraren funtzionaltasunen inplementazioan aurrera egiten jarraitu da. Orain arte, Prebentzio-Alerta sistema bat gaitu da.
 - Mugikortasuneko kontsulta bakarraren funtzioa gaituta dago. 2023an, Kontsulta Operatiboaren funtzionaltasuna ezarri da, delinkuentziari buruzko datuak formatu landuan automatikoki kontsultatzeko aukera ematen duena.
 - Patruilatze Fokalizatuaren funtzioa inplementatu du.
- Trafikoaren arloan, tresna eta funtzio analitiko berriak erabiltzea sustatu da, trafikoaren egoera hobeto ezagutzeko aukera emango duen informazioaren ustiapen integratu baterako. Zehazki, honako jarduera hauek egin dira:
 - Euskadiko hiriburueterako sarbideei, ibilbide luzeko zirkulazioari eta mugaz gaindiko trafikoari buruzko 3 mugikortasun-azterlan egin eta osatu dira.
- Euskadiko Trafikoko Kudeaketa eta Informazio Zentroko langileen eginkizunak birdefinitzeko eta informazio integratuaren ustiapenaren eta azterketaren arloan dituzten eskumenak eta gaitasunak egokitzeko, 14 prestakuntza-ekintza egin dira, Segurtasun Saileko 7 pertsonak osatutako talde baten parte-hartzearekin batera. Hona hemen egindako prestakuntza-ekintzetako batzuk:
 - Sei hileko prestakuntza Euskarri-ri eta Euskai-ri buruz.
 - Itsasertzeko N-634 errepideko bide-segurtasuneko prozedura eguneratzea, olatu-arriskuak direla-eta.

- 2023-2024 Neguko Bidezaintza Planari buruzko prestakuntza-ekintzak. Plan horri modu eraginkorrean erantzuteko, hornidura hauek ezarri dira: elurra kentzeko 206 makina, tona askoko ibilgailuak kentzeko 7 garabi, koordinazio eta zaintza lanetan laguntzeko 130 ibilgailu eta Ertzaintzaren lurralde-unitateetako patruilak.
- Trafikoko egoera bereziei erantzuteko prestakuntza-ekintzak. Alde horretatik, Aste Santuko eta udako irteera- eta itzulera-operazioak nabarmentzen dira. Ateratako datu nagusien artean, ondorioztatzen da 2023ko udan % 3 igo dela Euskadik zeharkatzen duen nazioarteko trafikoa, eta istripu-tasa % 2 murriztu dela iazko udarekin alderatuta.
- Nomenklatura aldaketak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako bide jakin batzuetan.
- Mezularitza Aldakorreko Panelak eta kamerak kudeatzeko aplikazioa garatzea.
- Trafikoa kudeatzeko aplikazio espezifikoiei buruzko prestakuntza-ekintzak.

L9 HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMAN ETA TOPAKETARAKO DINAMIKA SISTEMATIKO ETA EGITURATU BAT ARTIKULATZEA, BAITA GARDENTASUNERAKO ETA KONTUAK EMATEKO

Helburua herritarren eta gizarte zibilaren arteko lotura sortzea da, Euskadiko segurtasun sistemari dagokionez. Bestetik, herritarrek eta gizarte zibilak segurtasunaren arloan dituzten beharrak eta itxaropenak zehatz-mehatz eta lehen eskutik ezagutzea ere.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bereziki garrantzitsutzat jotzen du gizartearekin harremanak izateko eta elkartzeko sistemak ezartzea. Gainera, lehentasunezkoztat jotzen du bere jarduera gardentasun handieneko eta kontuak emateko irizpideekin garatzea. Horretarako, Arartekoarekin, Euskadiko Udalen Elkartearekin, EUDELekin, eta hainbat erakunde edo talderekin bilerak eta harremanak izan dira.

Azkenik, aipatzekoak dira, Erakundeko Zuzendaritzek parte hartu duten bilerak, gizarte zibilarekiko, herritarren elkarteekiko eta kolektiboekiko harreman-sare baten sorreran sakontzeko, komunikazio-bide egonkorrak ezartzeko, herritarren eskaerak jasotzeko.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Euskadiko segurtasun-sarearekiko herritarrekiko konfiantzazko ingurunea sustatzeko helburuarekin jarraituz, Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenen Bulegoaren rola indartu da. Horretarako, guztira 429 espediente kudeatu dira 2023an.
- Gizarte zibilarekiko, herritarren elkarteekiko eta kolektiboekiko harreman-sare baten sorreran sakondu da, komunikazio-bide egonkorrak ezartzeko, herritarren eskaerak jasotzeko. Horretarako, Segurtasun Sailak 2.419 bilera egin ditu guztira 2023an, honela banakatuta:
 - Larrialdien eta meteorologiaren arloan, 24 bilera egin dira Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako (SVAE) herritar-erakundeekin eta boluntariotza-erakundeekin.
 - Segurtasun Sailaren koordinazio-jarduerari dagokionez, guztira 55 bilera egin dira udalekin, aldundiekin, azpiegitura sentikorrek, elkarteekin eta sindikatuarekin. Era berean, urteko bigarren seihilekoan hainbat bilera egin dira udaltzaingoekin eta haien alkatetzekin eta zinegotziekin, erreferentzia geografikoa Ertzaintzaren mugapeekin lotuta dutenak.
 - Hainbat interes-taldetako 2.001 pertsonekin jarri gara harremanetan. Harreman horiek Ertzaintzaren Zuzendaritzaren jarduerarako bereziki interesgarriak diren ekarpenak egiten dituzten kolektiboekin izaten dira, hala nola ikastetxeekin, GKEekin, erretiratuen elkarteekin edo abarrekin.
 - Jokoaren eta ikuskizunen arloan, 139 bilera egin dira Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularian sartutako elkarte eta kolektibo askorekin. Horien artean, jokoarekiko mendekotasunaren prebentzioan eta terapian lan egiten duten elkarteak eta ostalaritzako elkarteak daude, besteak beste. Merkataritza-ganberak Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren bidez ere ordezkaturak daude.
 - Trafikoari dagokionez, 200 bilera egin dira Bide Segurtasuneko Plana zuzentzen zaien kolektiboek osatzen duten sarearekin. Aipatutako kolektiboaren artean, kolektibo ahulenen segurtasunera bideratutako enpresak eta bide-segurtasunaren eremuan lan egiten duten enpresa publiko-pribatuak nabarmentzen dira. Halaber, Trafiko Zuzendaritzaren ohiko

elkarreraginak dira sentsibilizazio-kanpainetan parte hartzen duten hezkuntza-elkarte guztiak eta biktimen elkarteak.

- Segurtasun Sailak informazioa emateko mekanismo bat du. Mekanismo horren bidez, segurtasunaren bilakaerarekin lotutako datuak argitaratzen dira, eta, unean-unean, interes orokorrekoak izan daitezkeen jardueri buruzko azalpenak ematen dira. Jarraian, argitaratutako txostenen guztizko kopurua ematen da, eremuka:
 - Sailaren jardueraren jarraipen orokorrari dagokionez, 55 txosten argitaratu eta egin dira, honela sailkatuta:
 - Ikerketa eta Azterketa Arloak 12 txosten egin ditu urtean, motaren eta lurraldearen arabera erregistratutako arau-hauste penalei buruz; 14 txosten Emakunderi zuzenduta, biktimizazioei eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz; 4 txosten Barne Ministerioari zuzenduta, arau-hauste penalen, atxilotuen eta biktimizazioen erregistroari buruz; eta 2 txosten Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiari zuzenduta.
 - Ekinbidek urteko jarduerari buruzko txosten bat (memoria) egin du Legebiltzarrarko zuzenduta.
 - Diziiplina Araubidearen Arloak txosten bat idatzi du Segurtasun Sailburuordetzaren Urteko Memorian sartzeko. Araubide Juridikoak ere txosten 1 idatzi du urteko memoriarako.
 - Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloak txosten bat idatzi du Sailburuordetzaren Urteko Memorian sartzeko, eta txosten bat Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeari zuzenduta.
 - Azkenik, segurtasunaren koordinazioari dagokionez, 18 txosten egin dira Euskadiko Azpiegitura Sentikorrek Babesteko Planaren egungo egoerari buruz.
 - Segurtasunaren arloan, txosten hauek sartzten dira: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020 – 2025 , Urteko Jarraipen Txostena eta 2023ko lehen seihilekoari dagokiona, Segurtasun Sailburuordetzaren 2022ko Memoria, Euskal Poliziaren 2022ko Delinkuentzia Memoria, 2022ko Gorroto Delituen Txostena eta Delinkuentzia Estatistikako 2 txosten.
 - Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren (LAEMZ) jarduera-memoriaz gain, 145 txosten egin dira, beste erakunde eta zerbitzu batzuekin izandako elkarreraginei buruzkoak. Garrantzi berezia hartzen dute lurralde-antolamenduarekin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin zerikusia dutenak.
 - Jokoaren eta ikuskizunen arloan, Jokoaren jarduerari buruzko hiruhileko dosierrak eta Ikuskizunen eta Jolas Jardueren hiruhileko dosierrak argitaratu dira. Guztira 4 txosten argitaratu dira.
 - Trafikoari dagokionez, 30 txosten estatistiko argitaratu dira, 2023ko ekitaldiari dagozkionak. Trafikoko zuzendariak urte amaieran prentsaurrekoan aurkeztutako urteko balantzean jasotzen dira txostenak. Datu horiek finkatuta geratzen dira Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordean aurkeztu eta banatzen den memorian.

- Gizartearekin elkartzeko hainbat mekanismo ezarri dira, herritarrek segurtasunaren arloan dituzten kezkak ezagutzeko eta haien eskaerei erantzuteko. Zehazki, Segurtasun Sailak herritarren 733 proposamen jaso ditu, honela banakatuta:
 - Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistematik kanpoko 393 proposamen inguru jaso dira, larrialdietako segurtasun-baldintzak hobetzeko helburuarekin.
 - Herritarren koordinazioari eta segurtasunari dagokienez, herritarren 20 proposamen jaso dira, eta horietako 4 Lankidetza atalean jaso dira, Ertzaintzaren webgunean.
 - Trafikoari dagokionez, herritarren 70 proposamen baino gehiago jaso dira, hainbat kanalen bidez; izan ere, Bide-Segurtasuneko estrategien xede diren kolektiboek sare horretan parte hartzen dute. Hainbat udalek Trafiko Zuzendaritzara jo dute beren udalerrietan mugikortasun segurua hobetzeko bide-segurtasunari buruzko azterlanak eskatzeko. Era berean, langileen bide-segurtasunarekin zerikusia duten enpresak eta herritarren eskaerak xede horretarako ezarritako edozein bitartekoren bidez jasotzen dira: telematikoak, telefonikoak, etab.
 - Joko eta ikuskizunei dagokienez, 2023an 250 proposamen baino gehiago jaso dira, jasotako proposamen guztiei erantzuteko aukera ematen duen herritarrekin elkartzeko mekanismo eraginkorra baitu. Kolektiboek nahiz norbanakoek egindako proposamenei Zuzenean zerbitzuaren eta Gardentasun Atariaren bidez erantzuten zaie.

L10 MEKANISMOA ETA KANALAK EZARTZEA HERRITARREKIKO ALDEBIKO KOMUNIKAZIO ZUZENA ETA EFIZIENTEA AHALBIDETZEKO

Helburua da informazioa partekatze inguru bat sortzea, herritarrek eta segurtasun publikoaren euskal sistemako erakundeek informazioa denbora errealean truka dezaten, eta, horrela, ahalik eta modurik egokienean eta informatuenean jardun ahal izan dezaten segurtasunaren aurkako edozein mehatxuren aurrean. Faktore kritikoak dira denbora errealean entzuteko eta hedatzeko gaitasuna, zerbitzu digitalen erabiltzaileen esperientzia eta zerbitzu horien eraginkortasuna hobetzea.

Segurtasun Sailak bere konpromezua nabarmentzen du tresnak eta zuzenezkoak, eraginkorrak eta egiaztatuak diren kanalak ahalbidetzea herritarrekiko. Helburua da egiazko informazioan oinarritutako komunikazio mekanismoak ezartzea, herritarrek segurtasunarekiko daukaten hautematea indartuz, haiei plazaratuz larrialdiei buruzko alerta eta gomendioak denbora errealean.

Zentzu horretan, nabarmenezkoa da kanal ofizialen bitartez egindako esfortzua komunikazio arloan, herrarekin elkarrengaitzeko, baliozko Euskadiko segurtasunari buruzko informazioa bildu eta helarazteko.

Azpimarragarriak diren ekintzak hurrengoak dira:

- Herritarrekin komunikazio zuzenagoa izateko kanal bat sortzeko asmoz, "diamoen aurkako eta anti-fake news" kanalak ezarri dira. Ildo horretan, Ertzaintzako gorputzek eta Udaltzaingoek segurtasunaren eremuari buruzko informazio egiaztatua ematen jarraitu dute, eta segurtasunaren pertzepzioan eragina izan dezaketen albiste eta buloak ezabatzen. Zentzu horretan, honako datu hauek azpimarra daitezke:
 - 2.342 anti-fake news publikazio egin dira kanal bakoitzarekiko.
 - Hiru kanal nagusi daude: Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren X (Twitter) eta Instagram kontua, X (Twitter) eta Irekia. Hauetan, segurtasunaren eta polizia-jardueraren arloko koordinazioarekin erlazionatutako gai guztiak jasotzen dira. Komunikazio bidez egindako albisteak eta prentsa-oharrak erakusten dira, bideo eta argazki-materialarekin batera, eta liburuxkak, diagramak eta antzekoak dituzten artxiboak txertatzen dira ere.
- Komunikabide digitalen erabilera potentziatu da herritarrekin komunikatzeko, informazioa jaso eta herritarrekin partekatu ahal izateko segurtasunarekin lotutako gertakariak. Fin horretarako hurrengo baliabide digitalak erabili dira, Zuzendaritza bakoitzeko:
 - Larrialdi eta Meteorologiari dagokionez, azpimarragarriak dira SOS Deiak eta Euskalmeten 8 kanal desberdinetan aurrera eraman den jarduera: SOS Deiak eta Euskalmeten sare sozialak (4), hots abisuen sistema, aukeragarria den abisu sistema, SVisual sistema gorrak diren pertsonentzat eta SOS Deiak 112-ko App-a. Horrez gain, X (Twitter) eta SOS Deiak kontuek 167.829 jarraitzaile dauzkate.
 - Ertzaintzak landutako gaien zenbakiari dagokionez, hau 8.622-koa izan da, jasota izan direlarik "Colabora", "Contacta" eta "WhatsApp" eta ohiko deien bitartez.
 - Beste alde batetik, Twitter Udaltzaigoak portalaren bitartez landutako gaiak 920 izan dira. Komunikazioan gehigarria den Segurtasun Saileko kanala da, eta Udaltzaingoaren jardueran dago fokatuta, eta herritarrei helarazten die Udaltzaingoaren hedapena, sarbide moduak eta

hautaketak, nabarmenezkoak diren ekintzak eta segurtasun kanpainiak. 2.000 jarraitzaile ditu, inguru.

- Trafikoaren arloan, euskal bide-sarearen eta bide-segurtasunari buruzko informazioa herritarrei zuzenean, berehala eta modu erabakigarrian emateko mekanismoak sustatzen jarraitu da. Ildo horretan, 63.912 kontsultari erantzun zaie 011 telefonoaren bidez; horietatik 27.798 informaziokoak izan dira eta 36.114 koordinaziokoak. Jarraitzaile kopuruari dagokionez, 33.366 izan dira guztira. Era berean, herritarrekin komunikatzeko erabilitako kanal hauek aktibo mantendu dira:
 - www.trafikoa.eus webgunea.
 - Twitter, Youtube eta Facebook.
 - OpenData: Euskal Trafiko gertakarien eta intzidentzien historikoa.
 - 011 telefonoa.
- 112 alderantzikatuan (112 reverse) oinarritutako prozeduraren bidez abisuak bidaltzen jarraitu da. Horri esker, arrisku zuzenengatik mehatxupean egon ahal diren herritarrek zuzenean ohartarazi daitezke. Honako abisu hauek egin dira:
 - Guztira 18 abisu bidali dira, 112 alderantzikatuaren bitartez. Bidalitako abisu gehienak ariketekin eta simulakroekin lotuta daude.
 - Guztira 87.326 pertsona suskribatu izan dira, 112 alderantzikatuan. Datu hori bat dator 112 aplikazioa gailuan deskargatuta duten pertsonen kopuruarekin.
- Delitu gertaeren komisioren aurrean egin beharreko izapideak arindu dira, eta, ahal den neurrian, polizia-bulegoetara eraman behar izatearen egoera saihestu egin da. Ildo horretan, Ertzaintzak 1.673 izapide hasi ditu ertzain-etxetik kanpo.
- Azkenik, administrazio-prozeduren digitalizazioarekin lotuta, 140 prozedura baino gehiago sinplifikatu dira, egoitza elektronikotik izapidetze elektronikoa osoa ahalbidetzeko. Publikoari begira, Segurtasun Sailaren jarduera nabarmenenak honako hauek izan dira:
 - Larrialdiei eta meteorologiari dagokienez, guztira 14 prozedura sinplifikatu eta/edo digitalizatu dira barne-arloan. Prozedura horiek Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren misioarekin lotutako ekintza zehatzen kudeaketa zehatzen duten tresnak dira. Prozedura horiek hainbat ekintzatan sailkatzen dira: kudeaketa estrategikoa, aliantzen kudeaketa, herritarrekiko harremanak, larrialdien prebentzioa, larrialdien ebazpena, informazio meteorologikoa, pertsonen, bitartekoen eta baliabideen kudeaketa, komunikazio-sistemak, kalitatea eta etengabeko hobekuntza eta aldi baterako prozedurak.
 - Ertzaintzaren webgunetik lortutako datuen arabera, 25 prozedura sinplifikatu eta/edo digitalizatu dira guztira. Zehazki, 23 izapide (aurretiko hitzordua eskatzeko prozedura berria barne) eta informazioa emateko herritarren lankidetzarako 2 formulario aktibo jaso dira.
 - Joku arloan sinplifikatu eta/edo digitalizatu egin dira 100 prozedimendu guztira. Gaur egun, prozedimendu guztiak telematikoki izapidetzen dira.

- Trafiko-kudeaketari dagokionez, 4 prozedura sinplifikatu eta/edo digitalizatu dira guztira. Zehazki, obra eta bestelako ekitaldiekin, kirol-probekin, garraio bereziekin eta EJI Erekin egindako bilerekin lotutako prozedurak digitalizatu dira, Tramitaguneren ingurunean digitalizazioa garatzeko.

L11 PERTSONA KONPROMETITUAK, KUALIFIKATUAK, PARTAIDETZA ZENTZUA DUTENAK ETA GOGOBETEAK EDUKITZEA

Helburua da talde profesional ahalik eta hoberenak izatea, bai trebakuntzaren aldetik, bai motibazioaren aldetik, segurtasunari arrisku eta mehatxuak suposatzen dioten egoerei aurre egiteko. Alde horretatik, Segurtasun Sailak talde konprometitu eta kualifikatu bat izango du, bere jarduerak ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean egin ahal izateko. Horretarako, besteak beste, hainbat prestakuntza-ekintza garatu dira Segurtasun Saileko langileentzat.

Beste alde batetik, polizia-zerbitzuetan emakumeak sustatzeko eta haiek presentzia izateko planak ezartzen jarraitu da, emakumeen errepresentazio eskasa zuzentzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren ezarpenean aurrera egin da.

Azpimarragarriak diren ekintzak hurrengoak dira:

- Larrialdiei eta meteorologiari buruzko formakuntza-ekintza batzuk eman dira herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuentzat. Emandako prestakuntzen xehetasunak honako hauek dira:
 - Herritarrei zuzendutako 15 formakuntza-ekintza ematea, hainbat erakunderekin lankidetzan, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren (SVAE) zerbitzuen zabalkundea sustatzeko.
 - EEZko kolektibo profesionali eta SVAE bolondresei zuzendutako 34 formakuntza-ekintza ematea. Kopuruak barne hartzen du Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen Oinarrizko Eskalako agentei emandako prestakuntza.
 - Urtean zehar, larrialdiei eta meteorologiari buruzko formakuntza eman zaie herritarrei eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako zerbitzuei. Formakuntza horretara 1.069 pertsona joan ziren, besteak beste: kolektibo profesionalak eta SVAEko bolondresak, 092ko operadoreak (larrialdietako deiak hartzen dituzten langileentzako formakuntza espezifikoak), udaltzainak eta Bilboko Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua, lehen mailako agenteen hautagaiak eta Ertzaintzako eta Udaltzaingoko ofizialordeak.
- Talde lana bideratzeko eta sustatzeko helburuarekin, organizazio formula batzuk plazaratu dira parte hartzea eta lankidetzan egindako lanean oinarrituta. Jarraian, Zuzendaritzaren arabera azalduta, lantaldeetan inplikaturako pertsonen kopurua jasotzen da:
 - Larrialdi eta meteorologiako arloan, 34 pertsonen parte hartu dute guztira, talde lanera bideratutako antolaketa-formuletan.
 - Segurtasuna koordinazioko arloan, 31 pertsonen parte hartu dute, Ertzaintzarekin batera, honako antolaketa-formula hauetan: Segurtasuneko erdi-mailako teknikaria sortzeko Batzordea, Segurtasun Koordinazioaren Zuzendaritza Nagusiaren Kontseilua beren jarduera koordinatzeko, eta GI/EI arloko Koordinazio Plana.
 - Joko eta ikuskizunen arloan, parte hartzea eta talde lanera bideratutako antolaketa formuletan inplikaturako pertsonen kopurua 15 da. Pertsona horiek koordinazio bileretan parte hartu dute.
 - Trafikoaren arloan, 50 pertsona inplikaturak daude parte hartzea eta talde lanera bideratutako antolaketa formuletan.

- Azkenik, 16 talde funtzional erregistratu dira, eta horietan parte hartzeko eta talde lanerako mekanismoak txertatu dira.
- Segurtasun Sailak kultura, kolaborazioa eta segurtasun sistema publikoan eragiten duten erakunde eta instituzioekiko erantzunkidetasuna formakuntza programak lantzen jarraitu izan du. Zentzu horretan, honako hau azpimarratzen da:
 - 24 formakuntza ekintza eman dira, hala nola: sartzeko ikastaroak, poltsak, igoerak eta espezializazioa, polizia kidego eta Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuarentzat garatuak.
 - Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak lankidetzak kultura sustatzeko prestakuntzak eman ditu, eta 50 pertsona bertaratu ziren.
 - Joko eta ikuskizunen arloan, barneko eta kanpoko prestakuntza sustatu da. Zehazki, Zuzendaritzako langileek prestakuntza-ekintza batzuk dituzte eskura, eta beren ekimenek egiten dituzte. Halaber, Zuzendaritzak bere langileentzako berariazko prestakuntza ekintzak proposatzen ditu. Prestakuntza presentziala zein online da, eta IVAPen bidez egiten da.
 - Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian 44 formakuntza ekintza egin dira egitura ez-presentzialean 2023 urtean zehar, akademiako ikasleentzat aurrera eramandako ikastaro informatikoak barne. Gai horietako batzuk hurrengoak izan dira: Word edo Access, euskararen hobekuntza, bide-heziketa edota emozioen kudeaketa.
- Segurtasun Sailak jarraitu izan du Heziketa Profesionala eta Unibertsitateko Hezkuntza arloetan egindako formakuntzan, segurtasunaren inguruan jakituria sorrazten. Segurtasunari buruzko 4 formakuntza ekintza nagusi garatu dira Hezkuntza Sistemaren zenbait erakundeekin batera. Ekintza horiek barneratzen dute, besteak beste:
 - Bi *Parez Pare* jardunaldi sexu-delinkuentziaren erregulazioari eta "Sí sí es sí" legeari buruz.
 - EHU/UPV udako ikastaro bat, Zientzia Forentseei eta Kriminalistikari buruzkoa. Ikastaroaren helburua izan da ikasleak hurbiltzea delituaren eszena dokumentatzeko lanera, frogak zaintzera, garraiatzera, biltegitatzera eta laborategira entregatzera, ondorengo analisi-prozeduretar, zaintza-katearen zaintzara, etab.
- Segurtasun Sailak mekanismoak eta ekimenak ezartzen jarraitu du, erakundeak behar dituen kualifikazio-mailak ziurtatzeko. Zuzendaritzen arabera, honako hau da urtean zehar egindako jarduerarik garrantzitsuenak:
 - Trafiko arloan 20 erakundeekin lankidetzan aritu izan da, formakuntzari dagokionez. Erakunde horiekiko lankidetzak eta komunikazioa etengabea da, eta trafikoaren eta bide-segurtasunaren kudeaketan lan egiten duten beste erakunde batzuekin dugun lankidetzak-estrategiaren ondorio da.
 - Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zerbitzuak 6 erakunderekin lan egin du, besteak beste, suhiltzaileekin, Ertzaintzarekin, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin, bolondresekin, Osakidetzarekin eta udaltzaingoekin, SVAEko parte-hartzaileen prestakuntzan.
- Hizkuntza-prestakuntzari dagokionez, Segurtasun Sailak formakuntza bultzatu du, batez ere ingelesa eta frantsesa. 2023an, 307 pertsonak jaso dituzte hizkuntza-ikastaro espezifikoak, eta ez dira sartu

ingeleseko edo euskarazko eskolak jasotzen dituzten ikasleak oinarrizko eskalan sartzeko ikastaroaren barruan. Era berean, hizkuntza gaitasuna eta Udaltzaingoan euskara sartzeari sustatzen jarraitu da, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana duten Udaltzaingoko 94 kidego eta zerbitzutara iritsi da.

- Segurtasun Sailak Ezagutza Kudeatzeko Sistema baten diseinua indartzen eta ezartzen jarraitu du, informazioa identifikatzeko, biltzeko, antolatzeko, eguneratzeko eta zabaltzeko sistemak ezartzeko. Zuzendaritzen arabera, honako hauek izan dira urtean zehar egin diren aurrerapen aipagarrienak:
 - Koordinazio arloak ezagutza kudeatzeko 13 tresna ditu. Horrez gain, 4 "Ezagutza Partekatuz" jardunaldi antolatu dira. Jardunaldi horietan, Segurtasun Saileko adituek gai zehatzetan duten ezagutza helarazi zaie udaltzainei: diziplina, bideozaintza, datuen babesa edo EBA proiektua. Batez beste 65-75 pertsona bertaratu dira. Gainera, Udaltzaingoak Koordinatzeko arloak kudeaketa-txostenak egiteko, gai ohikoenen biltegi bat erabili da, kontsulta gordailu bat izateko adinako garrantzia duena. Ildo horretan, gai desberdinei buruzko 6 txosten egin dira: akreditazio profesionalak, udaltzaingoen gorputzak eta zerbitzuak sortzea, tokiko segurtasun zerbitzuaren mankomunitatea, etab.
 - Ertzaintzaren Zuzendaritzak 83 arau kudeatu ditu (prozesu-fitxa 1, 11 jarraibide, 16 zerbitzu-agindu, 7 agindu operatibo, 20 jarraibide operatibo eta 28 jarraibide tekniko), ezagutza kudeatzeko sistematika bat errazteko eta gaitzeko.
 - Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak dokumentuak sailkatzeko barne fitxategien biltegia elikatzen eta indartzen jarraitu du.
 - Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak, urtean zehar, harrera liburua lantzen jarraitu du, urtero eguneratzen den lidergo eta kudeaketa eredia barne. Ezagutzaren helaraztea zuzendaritzak teknikariekin egiten dituen hileroko bileretan sustatzen da.
 - Trafikoko arloak etengabe landu du prozesuen kudeaketaren inplementazioa Estatistika arloarekin, baita Zuzendaritzaren mendeko Trafikoko Lurralde Bulegoetan ere.
- Laneko Prebentzioaren arloan, Giza Baliabideen Zuzendaritzak Ertzaintzaren Prebentzio Zerbitzu Propioaren jarduerak zuzendu eta kudeatu ditu, bai espezialitate teknikoen esparruan, bai laneko medikuntzaren, asistentzia sanitario programatuaren eta lehen sorospenekoen eta osasun mentalaren arloan. Gainera, eguneratuta mantendu dira osasuna zaintzeko protokoloak, eta asistentzia sanitario programatua zein urgentea eman zaie, bai Ertzaintzaren kolektiboari, bai lan-kontratuko langileei.
- Emakumeen sustapen eta polizia zerbitzuetan duten errepresentazioaren Planak sustatzen, plazaratzen eta lantzen jarraitu da. Zehazki, 2023ko lehen seihilekoan hasitako formakuntza prozesua bigarren baterako deialdian hautatu dira hurrengoak:
 - 31 emakume udaltzaingoetan, hau da, kidego horretarako hautatutako 130 izangai guztien % 24.
 - 128 emakume Ertzaintzan, hau da, kidego horretarako hautatutako 402 hautagaien % 31,94

L12 BEHARREZKO LANTALDEA ETA EGITURA FINKATZEA

Helburua Profesional kopuru nahikoa izatea da segurtasun mehatxuei era egokian erantzuteko. Faktore kritikoak dira karrera profesionalen kudeaketa eta langileriaren egitura egonkortzea.

2023. urtean zehar, Segurtasun Sailak jarraitu du Sarbiderako eta Barne Sustapenerako Sistema garatzen, Ertzaintza eta Udaltzaingoaren belaunaldien erreleboa lortzeko. Halaber, Ertzaintzaren plantillan emakumeen errepresentazioa handitzen jarraitu da. Hautaketa-prozesu horietan guztietan, emakumeen ordezkariak sustatu da, "Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian emakumeak sartzeko lehen Sustapen Plana 2026" xedatutakoaren arabera.

Jarduketa azpimarragarrienak honako hauek izan dira:

- 2023an jarraitu izan da eskala eta kategorietako (Oinarrizkoa, Inspekzio, Exekutiboa eta Goi-mailakoa) igoera prozesuen berrikusketarekin, kontuan izanik ezaugarri desberdinak, nola: sarbidea, antzintasuna, kualifikazioa, merezimenduak, irizpideak edo eskakizunak eta antzeko diseinuak Euskal Autonomi Erkidegoko Poliziarentzat.
- Segurtasun Sailak jarraitu du Sarbiderako eta Barne Sustapenerako Sistema garatzen, Ertzaintza eta Udaltzaingoaren belaunaldien erreleboa lortzeko.
- 203 plaza berri deitu dira guztira, 73 Ertzaintza eta 130 Udaltzaingokoak. Laugarren deialdi bateratura zabaltzea da helburua, bosgarrenarekin jarraituko baita 2024an. Horrela delarik, ere eskaini izan dira 69 plaza gehigarri Agente Lehenen baterako deialdian.
- Hautaketa prozesu berri bat deitu egin da txanda irekian egongo litekeen EEE-ko gorputzen (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingoaren Zerbitzuak Oinarrizko Eskalako Agenteen sarbidearen helburuarekin.
- Txanda irekiaren bidez egiten diren deialdietan beste gorputz batzuetako funtzionarioen edo Euskal Autonomia Erkidegoko polizia zerbitzuetako funtzionarioen artean lehiaketa-oposizio bidez bete daitezkeen lanpostuak sartzeari dagokionez, baldin eta deitutako plazaren kategoria baliokidea badute eta bost urte efektibo baino gehiago eman badituzte bertan, 2023an zehar 9 agente mugitu dira Ertzaintzara eta 7 Ertzaintzatik Udaltzaingora. Gainera, 24 agentek plazak aldatu dituzte hainbat udaltzainen artean.

4. INPAKTU ADIERAZLEAK

Kapitulu honek **inpaktu adierazle** batzuk jasotzen ditu. Horien helburua da Ekintza Plana ebaluatzeko esparru bat ezartzea, benetako eta hautemandako segurtasunari dagokionez.

1.2. INPAKTUA BENETAKO SEGURTASUNEAN ³

ADIERAZLEA	EMAITZA 2019	EMAITZA 2021	EMAITZA 2022	EMAITZA 2023	HELBURUA 2025
Delitu presentzialen tasa 1.000 biztanleko	48,54	43,13	51,55	49,78 ⁴	< 50
Ziberdelituen tasa 1.000 biztanleko	6,48	7,27	9,11	12,49 ⁵	
Argitze-tasa: delitu presentzialak	35,18	44,71	46,69	57,07	> 40%
Argitze-tasa: ziberdelituak	7,76	19,68	24,43	9,5	
Hilketen argitze-tasa	96,97	96,67	95	94,92	> 98%
Sexu-askatasunaren aurkako delituen argitze-tasa	84,92	85,41	82,18	83,04 ⁶	> 88%
Etxebizitzan indarra erabiliz egindako lapurreten argitze tasa	15,33	13,47	9,97	11,04	> 16%
Argitze tasa indarra eta larderia erabiliz egindako lapurretetan	47,98	49,88	47,43	44,63	> 50%
Emakumeen aurkako biktimizazioen kopurua	5.518	5.430	6.143	6.572	< 5.000
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua	4.419	4.317	4.870	5.235	< 4.000
Aktibatutako larrialdi planen ehunekoa, aktibatu beharko liratekeen plan guztiekiko	--	100,00	100,00	100,00	>80%

³ Inpaktu-adierazleak aldatu dira, Delinkuentzia-memoriaren metodologiaren arabera. Memoria horretan, egoitza-delituak eta ziberdelituak bereizten ziren

⁴ Ertzaintzaren datuak bakarrik ezagutzen dira, udaltzaingoaren datuak finkatu ez direlako.

⁵ Ertzaintzaren datuak bakarrik ezagutzen dira, udaltzaingoaren datuak finkatu ez direlako.

⁶ Arau-alaketak eta Segurtasun Sailaren politikek kontzientziazio handiagoa eragin dute herritarrengan, eta lehen ezkutuan zeuden delituen kopurua azaleratu da.

ADIERAZLEA	EMAITZA 2019	EMAITZA 2021	EMAITZA 2022	EMAITZA 2023	HELBURUA 2025
112 telefonoaren bidez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (App, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	30,20	25,26	100,00	>60%
Larrialdietarako alerta goiztiarren aurreikuspen ahalmenaren %, emaitzetara egokituta	--	83,33	73,30	100,00	>80%
Denbora errealean jasotako datu meteorologikoen %	--	99,10	99,79	100,00	>90%
Meteorologiari dagokionez herritarren eskura jarritako abisu tresnen eta bitartekoen (App, web, etab.) ezagutza/onarpen maila	--	100,00	100,00	100,00	>60%
Trafiko istripuen ondorioz hildakoen kopurua	51	42	44	44	< 35
Trafiko istripuen ondorioz larri zauritutako pertsonen kopurua	449	440	462	471	< 335
Egindako ikuskapenen kopurua, jokorako eta apustuak egiteko lokalen eta guneen kopuruaren arabera	3.500 ⁷	3.429	3.310	3.263	6.751
Adingabeei buruzko akten ratioa (bai jokatzeko lokaletan egoteagatik, bai jokatzegatik) egindako ikuskapen kopuruarekiko	0,22	0,02	0,00	0,01	0,0%

⁷ 2019an egindako ikuskapen-kopurua, 2020rako eta ondorengoetarako ezarritako taldekatze-irizpideen eta adierazleen arabera egokitu da.

5. ONDORIOAK

Euskadiko Segurtasun Publikoko Sistemaren Antolamenduari buruzko 15/2012 Legearen bidez, administrazio publikoek, herritarrek beren eskubide eta askatasunez gozatzeko baldintzak sustatzeko xedapen, prozedura eta baliabideen multzoa egituratzen dituzte. Hori dena, ongizateko eta gizarte-kohesioko espazioetan, Euskadi Europa mailako erreferente gisa kokatuz.

2023an zehar, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta hura osatzen duten zuzendaritza guztiek, beren konpromisoa eta kohesioa erakutsi dute **ESPPOren** ekimen, ekintza eta adierazleetan zehar aurkeztutako helburuak betetzeko.

ESPPOren jarraipen adierazleetan oinarrituta, esan daiteke plana **%93,03an** garatu dela, 2023rako aurreikusitakoarekin alderatuta, eta **%57,17an**, 2025ean amaitzen den indarraldi osorako aurreikusitakoarekin alderatuta.

Ilido estrategikoen arabera aurrerapen-mailari dagokionez, 2023an egindako lanak, neurri handi batean, garapen-aurreikuspenak gainditzen ditu. Zehazki, **12 ilido estrategikoetatik 8k % 90etik gorako aurrerapen-maila dute.**

Garrantzitsua da azpimarratzea **ESPPOren** definizioan eta garapenean kontuan hartu direla Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutako eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan islatutako **Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)**. Alde horretatik, Plana **% 57,05ean** garatu da 2020 – 2025 aldi estrategikorako Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez, eta zuzenean lagundu du **GJH 11. Konpromisuan** (*Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea*) eta **GJH 16. Konpromisuan** (*Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.*).

Era berean, plan honek eta bere hedapenak **emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna (GJH 5. Konpromisua)** osatzen duten politikak garatzen laguntzen du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera.

Segurtasun Sailaren jarduketa nabarmenei dagokienez, Zuzendaritzaren arabera banakatuta 2023an, honako ondorio hauek atera dira:

ESPPOren hedapenak, Segurtasun Sailaren gainerako politikekin batera, eta beste plangintza-mekanismo batzuek, hala nola gobernu-programek, eragin positiboa izan dute segurtasunarekin lotutako datu kuantitatiboetan.

2023an, **aldez aurretik onartutako Planaren Gobernantza Sistemari erantzuten dioten jarraipen-txostenak egin dira**. Bestalde, Segurtasun Sailarekin lankidetzeta eta koordinazio polizialerako hitzarmen berriak sinatzea sustatzen jarraitu da. Udalsarea 2030eko Udal Plan Estrategikoetan parte hartzea ere bete da, Segurtasun Sailak iraunkortasunarekiko duen konpromisoa erakutsiz.

Halaber, **Segurtasun Sailak Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia (Cyberzaintza) erabat martxan jartzeko egin duen lana nabarmentzea ezinbestekoa da**. Agentziaren helburua euskal sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzea eta koordinatzea da, bai eta zibersegurtasunaren eta Euskadiko garapen digital seguruaren arloko trebakuntza bultzatzea ere.

Euskal segurtasun-sistemak babes zibileko eta polizia-lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan duen posizionamenduari dagokionez, Segurtasun Sailak lanean jarraitu du segurtasunarekin zerikusia duten Europako erakundeekin ikerketa-proiektuetan parte hartzen, hala nola Europol eta Interpol. Era berean, Ertzaintzaren parte-hartzea eta presentzia artikulatzen jarraitu da, nazioarteko lankidetzaz-inguruneetan eskumena duen agentzia gisa.

Prebentzioa Segurtasun Sailaren jarduera-ardatz nagusietako bat da. Ildo horretan, **kolektibo kalteberen eta emakumearen aurkako indarkeriaren gaineko arriskuen prebentzioan egindako lana nabarmentzen da**. Ildo horretan, gazteei zuzendutako dozenaka programa bultzatu dira, besteak beste, adikzioen eta teknologia berrien erabilerari lotutako arriskuen aurrean prebenitzeko. Halaber, genero-indarkerien eta etxeko indarkerien aurkako prebentzio-programak indartzen jarraitu da, Emakunderekin batera, arrisku-kolektiboekin koordinatuta.

Halaber, **Segurtasun Sailak berrikuntza teknologikoak txertatzen jarraitu du, bere gaitasunak hobetzeko eta profesionalei laguntzeko**. Zehazki, mugikortasunerako neurri teknologiko berriak ezarri dira, eta egungo kudeaketa intzidentala, kudeaketa integraleko aplikazio baterantz (Euskarri) eboluzionatu da.

Azkenik, **Segurtasun Saila herritarrekin komunikazio zuzen, eraginkor eta kontrastatuko mekanismoak eta kanalak ezartzeko konpromisoagatik nabarmentzen da**. Ildo horretan, nabarmentzekoa da kanal ofizialen bidez egindako komunikazio-ahalegina, herritarrekin elkarreragiteko eta Euskadiko segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua biltzeko eta helarazteko.

6.- ERANSKINAK

Hona hemen ESPPOren ekintzen zerrenda, adierazleak eta 2023. urteari dagokion datua. Definitutako adierazlearekin denbora-tartean neurtu ezin izan diren ekintzen kasuan, “Ez dagokio” adierazten da.

ADIERAZLEEN EMAITZAK

I. ERRONKA. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA

EKIMENAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK	DATUA
L1. EUSKADIKO SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESKUMEN ESPARRUA EZARTZEA			
1.1 Euskadiko Segurtasun Publikoko 2025 Plana onartzea, segurtasunean esku hartzen duten guztien –publikoak zein pribatuak izan– zerbitzura egongo den gida bihurtzeko, non koordinazio mekanismoak definituko diren.	1.1.2 2020-2025 ESPPOren segimendua eta ebaluazioa, bertan ezarritako kudeaketa ereduaren arabera.	- Egindako urteko ebaluazio txostenen kopurua.	2
1.2 Segurtasun arloan autogobernua sendotzea eta defendatzea.	1.2.1 Segurtasun Batzordeari bultzada berria.	- Segurtasun Batzordeak egindako bileren kopurua.	1
	1.2.2 Segurtasun Sailburuordetzaren eta Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren arteko interkomunikazio sistema operatibo bat ezartzea.	- Koordinaziorako Batzorde Iraunkorraren bilera kopurua.	2
		- Koordinazio Polizialerako Batzorde Teknikoaren bilera kopurua.	2
		- Informazio, Polizia Judizial eta Koordinazio Operatiboko Azpibatzaordeen bileren kopurua.	28
1.3 Euskadi/Basque Country 2030 Agendaren GIHa lerrokatzea/garatzea.	1.3.1 Euskadi/BasqueCountry 2030 Agendaren 11. GIHa garatzea.	- Gaueko segurtasunaren pertzepzioa hirietan.	6,96
	1.3.2 Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen udal plan estrategikoetan laguntzea.	- Parte hartzen den Udalsarea 2030 sareko udal-plan estrategikoen kopurua.	35

L2. SEGURTASUN INTEGRALAREN EREDUA OSATZEN DUTEN ERAKUNDE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA MEKANISMOAK SENDOTZEA

2.1	Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia erantzunkidea eta eraginkorra izan dadin.	2.1.1	Euskal Poliziaren Koordinazio Sistema sendotzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa).	- Sinatutako hitzarmen berrien kopurua.	38
